

WEBGUNEAREN ERABILTZAILIEN PRIBATUTASUN-POLITIKA

Pribatutasun-politika honen helburua da jakinaraztea nola tratatuko dituen **MasMovil Mediación de Seguros** bere web-orrien bidez, sare sozialetako profilen bidez eta datu pertsonalak tratatzen diren beste edozein plataforma digital edo baliabide elektronikoren bidez jasotzen diren datu pertsonalak. **MasMovil Mediación de Seguros** eskubidea du termino hauek aldatzeko, lege- edo jurisprudentzia-berrikuntzetara egokitzeko. Kasu horietan, aldaketa horiek gauzatu baino lehenago jakinaraziko dira orri honetan, behar besteko tartearekin. Aldaketa horren berri eman ondoren gure zerbitzuak erabiltzeak haiek onartzea ekarriko du.

1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, pribatutasun-politika honi dagokionez, MasMovil Mediación de Seguros SL da (IFZa: B44992477; egoitza soziala: Bruselas hiribidea 38, 28108, Alcobendas, Madril; Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aseguru- eta berraseguru-hornitzaileen Erregistro administratiboan aseguru-etxe lotu moduan inskribatua). Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jartzeko, bidali mezu elektronikoa bat dpo@masmovil.com helbidera.

2. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datuak, eta zer legitimaziorik?

Helburu hauetarako tratatuko dira biltzen ditugun erabiltzearen datu pertsonalak:

Tratamendua	Helburua	Legitimazio-oinarria	Datu tratatuak	Gordetzeko epea
Erabiltzaileek eskatutako zerbitzuak: <ul style="list-style-type: none">Zozketa eta lehiaketetan parte hartzeaKontsultei erantzuteaForo, blog edo sare sozialetan parte hartzeaNewsletterra bidaltzea	Interesdunak une bakoitzean eskatutako zerbitzuen prestazioa kudeatzea.	Kontratu bidezko harremana: Zerbitzuak doakoak izan arren, haiek emateko kontratu bidezko harreman bat sortzen da.	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, helbidea, IP helbidea, interesdunak emandako beste datu pertsonal batzuk edo sustapen-ekintzan eskatutakoak.	Zerbitzua ematen den bitartean eta ondoren, legezko obligazioen preskripzio-epean.
Erosketa-saskia bertan behera	Arrazoiren bategatik erabiltzaile batek bertan behera uzten badu hasitako kontratazio-prozesu bat, harekin harremanetan jarri ahal izango gara edozein bide erabiliz, bitarteko elektronikoak barne, kontratazioari berriro ekiteko eta kontratua bertan behera zergatik utzi den edo zergatik huts egin duen jakiteko.	Sozietateak interes legitimoa du huts egindako kontratazio-prozesu bati berriro ekiteko eta uztearen arrazoiak ezagutzeko, prozesua hobetzeko.	Kontratua eten aurretik emandako identifikazio-datuak, harremanetarako datuak eta bestelakoak, hala nola helbidea eta kontratatutako zerbitzuak/produktuak.	30 egun

Sozietatearen komunikazio komertzialak	Sozietatearen produktu edo zerbitzuei buruzko informazio komertziala ematea, edozein bidetatik.	Webguneko formularioen bidez emandako adostasuna (adibidez, Deituko dizugu).	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, ahotsa, produktu edo zerbitzuen tipologia eta gure inprimakietan ematen diguzun edozein datu	Adostasuna kentzen ez duzun bitartean
Taldeko beste enpresa batzuei jakinaraztea, helburu komertzialekin	Enpresa-talde bereko beste enpresa batzuek beren produktu edo zerbitzuei buruzko informazio komertziala ematea	Adostasuna	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, ahotsa, produktu edo zerbitzuen tipologia	Adostasuna kentzen ez duzun bitartean
Cookieak	Webgunearen erabiltzaileek harekin zer-nolako interakzioa duten jakitea.	Adostasuna	Cookie-politikan zehaztuak	Cookie-politikan deskribatuak

Taulan aipatutako helburuen ondoren, eta gure barne-prozesuak hobetzeko dugun interes legitimoan oinarritutako anonimizazio-prozesuaren ondoren, aurrez egindako tratamenduen datuak erabili ahal izango dira hauek hobetzeko: bezero ez direnei emandako zerbitzuak, merkaturatze-prozesuak, zalantzei erantzuteko prozesuak eta abar.

Edonola ere, ez da hartuko erabiltzaileengan eragin juridikoa duen erabaki automatizaturik, eta jokabide-publizitateko cookieetarako adostasuna izanez gero soilik osatuko da profila. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi cookie-politika.

3. Nori jakinarazten dizkiogu zure datuak?

Etxeko aseguruaren kotizazioari buruz edo kontratazioari buruz informazioa eskatuz gero, identifikazio-datuak, harremanetarako datuak eta helburu horretarako eskatutako beste edozein datu Mapfre España Compañía de Seguros y Reaseguros SArI emango zaizkio (IFZa: A28141935; helbidea: Carretera de Pozuelo a Majadahonda 50, 28222, Majadahonda, Madril; Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aseguru- eta berraseguru-hornitzaileen erregistro administratiboan inskribatua).

Mapfreak tratamenduaren arduradun gisa tratatuko ditu bere zerbitzuen kontratazio-prozesuei buruzko datu pertsonalak. Kontratazioko Baldintza Orokorretan, Datuak Babesteko Araubidea atalean, Mapfreak datu horiek nola tratatuko dituen dago jasota. Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko edo eskubideak baliatzeko, bidali mezu elektronikoa bat DPO.MAPFRE_ESPANA.es@mapfre.com helbidera.

Legezko betebeharra edo errekerimendu judiziala dagoenean ere komunikatu ahal izango dira datuak. Baimena ematen baduzu, zu identifikatzeko eta zurekin harremanetan jartzeko datuak gure [enpresa-talde](#)ko beste enpresa batzuei komunikatu ahal izango zaizkio, gure produktu edo zerbitzuei buruzko informazioa zuri emateko.

Bestalde, zure datu pertsonaletarako sarbidea izango dute datu horien tratamendu-eragileek, hau da, beren funtzioak betetzeko datu pertsonaletan sartu behar duten zerbitzu-emaileek. Oro har, datu pertsonaletara sartzen diren zerbitzu-emaileek informazio-sistemen eta teknologiaren sektoreetan eta publizitatearen eta telesalmentaren sektoreetan dihardute batik bat.

4. Nazioarteko transferentziak

Sozietateak ez du asmorik bezeroei buruzko datu pertsonalen nazioarteko

transferentziarik egiteko, oro har; hala ere, baliteke Europako Esparru Ekonomikotik kanpo erabiltzaileen datuak tratatu behar dituen hornitzailearen bat izatea —adibidez, zerbitzu teknikoren bat edo laguntza-zerbitzuren bat—, eta kontratua goiko taulako helburuetan aurreikusitako baldintzetan gauzatu behar izatea.

Kasu horietan, Sozietateak ziurtatuko du berme egokiak dituela. Berme horiek lortzeko, Europako Batzordeak onartutako kontratu-klausulen ereduak sinatzen dira egoera horretan dauden hornitzaileekin, edo Arau Korporatibo lotesleak, kasuan kasu. Berme horien kopia bat edo haiei buruzko informazioa lortu nahi baduzu, Datuak Babesteko gure ordezkariari idatz diezaiokezu 1. atalean adierazitako helbide elektronikora.

5. Zenbat denbora gordeko ditugu zure datuak?

Oro har, 1.2 atalean adierazitako kontserbazio-epeak alde batera utzi gabe, datuak behar beste denboraz gorde ahal izango dira, tratamendua eragin zuten xedeei erantzuteko, eta, ondoren, blokeatuta, tratamendutik eratorritako lege-betebeharrak preskribatu arte.

6. Zein dira zure eskubideak?

Jakinazten dizugu ezen, datuak babesteko legedian aurreikusitakoarekin bat, eskubide hauek dituzula:

- Datuetara irispidea izateko eskubidea: zer-nolako datuak tratatzen ditugun eta egiten ari garen datu-tratamenduak zer ezaugarri dituen jakiteko eskubidea.
- Datuak zuzentzeko eskubidea: zure datuak aldatzeko eska dezakezu, okerrak izateagatik edo egiazkoak ez izateagatik.
- Eramangarritasun-eskubidea: tratatzen ari garen datuen kopia bat eskuratu dezakezu, formatu interoperagarri batean.
- Legean jasotako kasuetan, tratamendua mugatzeko eskubidea.
- Datuak ezerezteko eskubidea: zure datuak ezerezteko eska dezakezu tratamendua dagoeneko beharrezkoa ez denean.
- Aurka egiteko eskubidea: jakinarazpen komertzialak bidaltzeari uzteko eskatzea, arestian aipatutako moduan.
- Emandako adostasuna errebokatze eskubidea: hori edozein unetan egin dezakezu, bezeroarentzako arretara deituz edo eremu pribatuaren bidez.

Eskubide horiek postaz gauzatu ditzakezu, Avenida de Bruselas 38, 28108 Alcobendas (Madril) helbidera edo dirección privacidadseguros@ helbidera idatzita; zer eskubide gauzatu nahi duzun adierazi beharko duzu, eta beharrezko dokumentazioa erantsi. Halaber, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Espainiako Agentziari erreklamazio bat ere jar diezaiokezula, hemen: www.aepd.es.

Zure datuen tratamenduari buruz zalantzarik izanez gero, datuak babesteko gure ordezkariarekin jar zaitezke harremanetan, helbide honetara idatziz: dpo@masmovil.com.